



BARRUTIA, S.
Tfno./Fax 94 625 31 00
e-mail: 015020aa@barrutia.net
49383 ARRATZU-BIZKALIA



FAX zenbakia

número 94 627 62 13

Data

Fecha _____

Orrialde kopurua, hau barne 6

Número de páginas, incluida esta

JASOTZAILEA _____ AMAIA EIGUREN

IGORLEA _____ BARRUTIA H. I.

GAIA Hitzarmena ixteko konpromisoa hartu dugu denok, Txosten juridiko-ekonomikoaren zain gagozela hitzarmena sinatzeko, **batzarreko akta, partehartzaile guztion sinadurekin, udal osoko bilkuretan –onespenerako- aurkeztea adostu zen.**

1. Batzarreko akta, sinadura guztiekin.
2. Hitzarmenaren eskema.

Eskolaren izenean, egindako ahalegina bihotzez eskertzen dugu.

ZUZENDARITZA TALDEA.

Barrutia ikastetxerako eskualdeko batzordea**Barrutia eskola, 2011ko maiatzak 10****JON ZUAZO jaunarekin batzarra***Bertaratutakoak:*

Lurdes Aboitiz, Nabarnizko alkatea
Javier Berrojalbiz, Ajangizko zinegotzia
Txomin Bilbao, Kortezubiko alkatea
Begoña Díaz, Barrutia ikastetxeko zuzendaria
Idoia Fernández, Gernika-Lumoko zinegotzia
Lurdes Gorroño, Elantxobeko zinegotzia
Asier Madarieta, Eako alkatea
Joseba Mallea, Mendatako alkatea
Aritz Ojinaga, Gernika-Lumoko aparailaria
Josu Olano, Arratzuko alkatea
Agurtzane Renobales, Barrutia ikastetxeko idazkaria
Jesus Mari Ziluaga, Ibarrangeluko alkatea
Jon Zuazo, Hezkuntza Saileko baliabideen arduraduna

Begoñak, batzordeari hasiera eman dio falta diren bi herriei (Errigoiti eta Ereño) erreferentzia egin eta adostasun batera heltzeko prest daudela esanez.

Idoiak, Zuazo jaunari informazioa eskaintzearen egoeraren berri eman du:

- Hitzarmena sinatuko dela aurreikusten dugu.
- Hitzarmen horrek bi atal desberdin ditu: ordezkari-tza sistemarena eta obren kudeaketarena. Ordezkari-tza, bi gunetan ikusten da; bata, herri guztietako ordezkari-ek osatutakoa, azken erabakiak hartuko dituen; bestea, eskualdeko talde politiko guztiek osatutako lau-zpabost pertson-ek osatutako batzorde eragilea, lanak aurreratu eta Eskola Kontseilura joango dena. Obren kudeaketaren arloan, adostu gabeko atal batzuk ditugu, batez ere ordainketa egiteko proportzioa.
- Txosten ekonomiko eta juridiko bat osatzen ari gara hitzarmena taxuz egiteko.

Zuazo jaunak, aurten Eusko Jaurlaritzak 60.000€ inbertituko dituela argitu du, eskualdeko udalerri-ek egiten dituzten lan-ek %60aren finantzaketaz gain. Hezkuntza Sailak, urteko eta ikastetxeko 60.000€ inbertitu ditzake eta aurten Barrutiak diru hori jasoko du. Datorren urtean ikusiko da.

Josebak, banatutako taulen (hiru urtetarako gastuen proiektzioak) argipena eskatu du. Idoiak argitu dio, proportzio desberdinak aplikatuz udal-erri bakoitzari legokion azaltzen dela: bakoitzak duen ikasle kopuruaren arabera, herri bakoitzaren biztanleen arabera eta herri bakoitzaren

biztanleen arabera baina Gernika-Lumoren kasuan, Barrutiako eskola esleitzen zaion populazioa soilik kontuan hartuta (Oka ibaitik Barrutiarantz, Errenteria eta Lorategietako biztanleak). Aritzek, mantenuko gastuak UdalKutxako diruarekin *estaltzen* direla gehitu du.

Asierrek Eusko Jaurlaritzak esfortzu estra bat egin beharra ikusten du, Barrutiaren egoera ikusita eta Zuazok erantzun dio, esfortzua urteko 60.000€ak direla eta ez dagoela gehiago krisi egoera dela eta.

Javierrek, hurrengo urtean esfortzu estra hori egitea posible den galdetu dio Zuazori eta honek, beraz ezin duela hori ziurtatu, aurrekontuak egin gabe daudela, baina egitekotan, 60.000€koa izango litzatekeela berriz ere. Hortik kanpora ezer.

Jesus Marik, taulan azaltzen diren lanak bateratu eta hiru urtetan baino, denak bi urtetan egitea proposatzen du.

Gai orokorrak alde batetara utzita, proportzioen eztabaidan sartu gara:

- Asierrek eta Josebak biztanleen arabera ikusten dute.
- Josuk ikasleen arabera deritzo justuagoa, ikaslerik egon ezean ordaindu beharra ez baitu ikusten. Gainera, Gernika-Lumoren iritzia zein den ikusita ez dago gaia blokeatzearen alde, eskolaren kaltetan izango bailitzateke.
- Idoiak, Gernika-Lumoko Udalaren posizioa ikasle kopuruaren arabera izatea dela esan du.
- Asierrek Gernika-Lumoren zentralitatea azpimarratzen du eta hortaz, gainerakoek baino gehiago ordaindu beharko lukeela pentsatzen du. Gainera, haur eskola ere bertan dago -Gernika-Lumorena soilik dena- eta ez dutela zertan ordaindu eurek gastu hori.
- Jesus Marik tarteko soluzioen bat legokeen galdetu du, indize zuzentzailearen bat aplikatu edo antzeko zerbait. Arazo larregi aurreikusten zaio honi.
- Asierrek bi urtetarako hitzarmena egitea proposatu du, biztanleen arabera proportzioarekin eta bi urte barru berriz berrikusi.
- Adostasuna dagoela iruditu arren, Aritzek beste gai bat mahai-gaineratu du: proportzio horretan ixten badugu akordioa, 2011n ezingo lirateke aurreikusitako obra guztiak egin (obra txikiak eta fatxada), Gernika-Lumok ez baitu aurrekontuan dena egiteko dirurik.
- Obra horiek lehenbailehen egitea ezinbestekotzat jotzen da, oro har.

Hitzarmena ixteko konpromisoa hartzen dugu denok, txosten juridiko-ekonomikoaren zain geratuz hitzarmena bera sinatzeko. Proportzioari dagokionez, aurtengo obrak egiteko biztanleen arabera, baina Gernika-Lumoko errekatik honakoak soilik kontuan hartuta egin daiteke, eta hurrengo urteetarako berrikuspena egitea litzateke egokiena.


Hitzarmenaren eskema, atxikitutako dokumentuan azaltzen dena izango litzateke.

Egiteko geratzen diren lanak:

- Hitzarmen eredia idaztea.
- Txosten juridiko eta ekonomikoa osatzea.

Batzordearen hurrengo bileraren data ez dugu zehaztu. Baina datorren astelehenetik aurrera, akta hau sinatzera pasako dira herri guztietako ordezkariak.


Gernika-Lumoko Udalaren izenean,




Ajangizko Udalaren izenean,




Arratzuko Udalaren izenean,



Eako Udalaren izenean,




Elantxobeko Udalaren izenean,




Ereñoko Udalaren izenean,



Errigoitiko Udalaren izenean,




Ibarrangeluko Udalaren izenean,




Kortezubiko Udalaren izenean,



Mendatako Udalaren izenean,



Nabarnizko Udalaren izenean,



Arratzu, 2011ko maiatzaren 10a

Barrutia LH ikastetxeko azpiegitura lanen finantzaketa hitzarmenerako (zirriborroa)

Parte hartzaileak ondorengo udalak dira: Gernika-Lumo, Ajangiz, Arratzu, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata eta Nabarniz.

1. Ordezkaritza sistema

- *Eskualdeko herrien batzarra*: herri guztietako ordezkariak egongo dira. Azken erabakiak hartuko dituen taldea da: urte bakoitzean egin beharreko lanen proposamenari onespena eman, ordainketari onespena eman, Talde Eragileraren osaketa erabaki.
- *Talde eragilea*: Eskualdeko talde politiko guztien ordezkari osatutako lau pabost pertsonetako lan-taldea da. Eskola Kontseiluan parte hartzea, urtean egin beharreko lanen proposamena osatzea eta egunerokotasunari aurre egitea dira bere eginkizunak.

2. Mantenua eta inbertsioak:

- *Gernika-Lumok Barrutia eskolarako jasotzen duen Udalkutxako dirua gastu hauetarako erabiliko da.*
- *Langilearen gastuak Gernika-Lumoko udalari dagokio, Iñaki Pérezez lanean jarraituko duen bitartean.*
- *Obren kudeaketa Gernika-Lumoko Udalari egokituko zaio.*
- *Gastuen finantzaketa udalerrti guztien artean burutuko da.*
 - 2011 urteko lanei aurre egiteko, honako proportzioa jarraituko dugu (biztanleen arabera, Gernika-Lumoren kasuan Barrutia esleitzen zaion biztanleria kontuan hartuz):

		Kostua	Kostua inbertsioak	finantziazioa				
				Eusko Jauriaritzak	Udaleko inbertsioa		Udalek Mantenua	
Mantenua	gasoila, garbiketa, lorazaintza, etab	100.000,00	86.966,85	0,00	0,00	34.786,74	100.000,00	100.000,00
Inbertsioa	tabikea, korbtoa, sarrera atearak, etab	29.360,00		17.616,00	11.744,00		0,00	
	Fatxada konponketa	57.606,85		34.564,11	23.042,74		0,00	

	2.011			
	Biztanle kopurua (%)	Ekarpeneko konpromisoa	Benetazko kostua	Kuota Mantenua
Gernika-Lumo	34,440	29.951,38	11.980,55	34.440,00
Ajangiz	6,400	5.565,88	2.226,35	6.400,00
Arratzu	5,390	4.687,51	1.875,01	5.390,00
Ea	12,760	11.096,97	4.438,79	12.760,00
Elantxobe	6,240	5.426,73	2.170,69	6.240,00
Ereño	3,670	3.191,68	1.276,67	3.670,00
Errigoiti	7,530	6.548,60	2.619,44	7.530,00
Ibarrangelu	8,730	7.592,21	3.036,88	8.730,00
Kortezubi	5,960	5.183,22	2.073,29	5.960,00
Mendata	5,550	4.826,66	1.930,66	5.550,00
Nabarniz	3,330	2.896,00	1.158,40	3.330,00
	100,000	86.966,85	34.786,74	100.000,00

- 2012. urteko lanei heltzeko proportzioa, biztanleen araberakoa izango da. Hurrengo urteetarako proportzioa berrikusi egingo da.

3. Lan egiteko epeak:

- Irailean, egindako obren gastuen zuriketa egingo litzateke.
- Irailean, hurrengo urtean burutu beharreko obren zerrenda proposatuko litzateke, dagokien aurrekontuarekin.
- Urria-azaroan, egin beharreko obren onespena itxiko litzateke, hurrengo urteko herri bakoitzeko aurrekontuan sartu abal izateko..
- Urtarrilean, aurreko urteko balantzea egiteko eta mantenu eta inbertsio obren behin behineko likidazioa gauzatzeko bilkura egin beharko da.
- Ekainean, Eusko Jauriaritzaren dekretua medio, diru-laguntza eskaera egingo litzateke.